



RASFF TXOSTENA

ELIKAGAIAK


ALERTAK eta JAKINARAZPENAK

- 🕒 Alertak eta jakinarazpenen kopurua
- 📂 Jakinarazpenen kategorizazioa
- 📊 Antzemandako arriskuen jatorria
- 🚨 Antzemandako arriskuak
- 📅 Azken urteen arteko konparazioa

2023ko URTEKO LABURPENA ➔



ALERTA ETA JAKINARAZPENEN KOPURUA

2023an, Europako Alerta azkarra sistemaren (RASFF) bidez **4205 alerta eta jakinarazpen** jaso dira.



JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA



2023 urtean zehar, elikagaiei buruzko 4205 jakinarazpen izan dira. Horietatik, 1177 (%28) **alertak** izan dira, 1614 (%38,5) **informazio-jakinazpenak** eta 1414 (%33,5) **mugan egin diren ukapenak**.



ANTZEMANDAKO ARRISKUEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorriari dagokionez, urtean zehar, aipatu behar da **Europak (%44,5)** eta **Asiak (%31,5)** eragin dituztela jakinarazpen gehienak. Pasa den urtearekin konparatuta, European kopurua altuagoa izan da eta Asian, berriz, bajuagoa.



Urteko batezbestekoak hurrengoak izango lirateke:



ANTZEMANDAKO ARRISKUAK

Arrisku guztietatik, **hondakin fitosanitarioek eta kutsadura biologikoak** eragin dute jakinarazpen gehien (%22,5 bi kasuetan), eta jaitsi egin dira bai fitosanitarioak, % 25,5etik, bai kutsadura biologikoa, % 23,5etik. Iruzurrak oso hurbil daude, aurreko urteko % 19aren aldean zertxobait gora egin baitute. Kutsadura kimikoa eta metal astunak ere igo egin dira, % 6tik eta % 3,5etik, hurrenez hurren; kutsadura fisikoa eta toxina naturalak, berriz, ehuneko berdinetan mantendu dira.


Hauek dira antzemandako arriskuei dagozkien urteko neurriak eta lauhilekoko izan duten bilakaera:




..... ANTZEMANDAKO ARRISKUAK

Kutsadura biologikoaren kasuan, **SALMONELA** izan da kasuen % 58an identifikatu den arriskua (urteko batez bestekoa), aurreko urtean (% 64) baino askoz txikiagoa..


Honako hau izan da kutsadura biologikoek izan duten joera:



Taldea giza osasunerako garrantzitsuak diren salmonelen (*S.typhimurium* eta *S.enteritidis*) eta beste salmonela batzuen artean banatzen badugu, ikusiko dugu azken horiek direla oraindik ere % 78,5ean nagusitzen direnak, aurreko urtean bezalaxe ia, hau da, % 79an. Bai *S.enteritidis* bidezko jakinarazpenak, bai *S.typhimurium* bidezkoak, ia berdin mantendu dira. **OILASKOA** izan da protagonista nagusia hiru kasuetan, eta **SESAMO** ere protagonista izan da. Bilakaera hau izan da urtean zehar:




Kutsadura biologikoarekin jarraituz, aurten ere *Listeria monocytogenes* espeziearen kasuak nabarmentzen dira, eta jakinarazpenen eragile nagusiak **GAZTAK (batez ere bigunak), ARRAIN KETUAK ETA HARAGI-ERATORRIAK** dira.



..... ANTZEMANDAKO ARRISKUAK


Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasuen % **57,5**ean, **AFLATOXINAK** eragin du kutsadura, eta 2022ko % 71tik behera egin du. **KAKAHUETEA** da gehienetan inplikaturako produktua.



Hondakinei dagokienez, **FITOSANITARIO**en hondakinak % **95** izan dira. Lagin bereko **plagizida ezberdinak**, alde batetik, eta **KLORPIRIFOAK**, Europar erabiltzea debekatua, bestetik, hiru laurden baino gehiagoren erantzule izan dira. Inplikaturako produktu nagusiak **zitrikoak**, **piperrak** eta **arroza** dira.

Iruzurren kasuan, aipagarrienak **ELIKADURA-OSAGARRIETAN DEBEKATUTA DAUDEN SUBSTANTZIAK** eta **etiketan ADIERAZI ez DIREN ALERGENOAK** dira. Bien artean, jakinarazpenen ia % 85 batzen dute.

Urteko eboluzioa hurrengo hau izan da:



AZKEN URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA

